


Ginearen Idilio Arratian Bilboko Arte Ederretako museoan

12. orrialdea

Jon Artetxek irabazi dau 47. Jazzaldiko Kartel Lehiaketea

Jon Artetxe billaroztarra izan da Donostiako Jazzaldiko kartel lehiaketako irabazlea Chillida izenburudun lanagaz. 1.200 euroko saria irabazi dau, eta gainera, Artetxeri bere lanak milaka personak ikustea ahalbidetuko deutso. 12. orrialdea



Arratiako I. Raid-a Artean izango da aprilaren 21ean

11. orrialdea

begitu ^{TOKIKOM} 10 urte

arratia ubide zeberio

161

2012ko aprilaren 3a
hamabostekaria
www.begitu.org

Hamar urte, hamaika barri

Hamar urte betetzen ditu BEGITUK april honetan. 2002an sortu zan Arratia, Ubide eta Zeberio barriak bertako euskeran emoteko helburuagaz.

Gure eremuko informazio giti agertuten zala hedabideetan eretxita, Ganoraz Euskera Taldearen ekimenez eta Topagunearen laguntzeagaz eskaltzale talde batek sortu eban BEGITU. Hilabetekaria zan orduan. 2008ko urtailako 71. zenbakitik aurrera hamabostekaria da eta 100. zenbakian www.begitu.org sortu zan.

Orain erronka barriak ditu gure aldizkariak eta horreei aurre egiteko, webgunea barriztatuko dau irakurleak parte hartze aktiboa izan dagien. Webgune barriztatua aprilaren 20an, Igorreko Kultur Etxean egingo dan urteurren ekital-

dian aurkeztuko da.

Informazio eta Komunikazio teknologiak krisia eta erronka barriak ekari dabez hedabideen sektorerera, informazioa lortzeako moduak aldatu egin dira eta. Krisi ekonomikoak be eragina dauka tokiko hedabideetan. Hori dala eta, BEGITU tokiko beste hedabideak batera, Tokikom SL enpresan sartuko da, sasoi barriari estrategia bateratu batez aurre egiteko.

Bertako informazioa emoten jarraituko dau BEGITUK, sasoiari etenbarik egokitzen. 8. eta 9. orrialdeak



BEGITUREN lehenengo portadea.

LEMOA

Enplegua erreguletao dosierra bertan behera

Cementos Lemonak atzera bota dau enplegua erreguletao dosierra eta 2010, 2011 eta 2012ko lan hitzarmena sinatu dau. Martiaren 22an lortutako akordio honeri esker, konsumo prezioen indizearen (KPI) araberako soldata igoerea izango dabe beharginak, beste lorpen batzuen artean. 5. orrialdea



ARRATIA

Grebak arrakasta handia gurean

Bizkaia osoan legez, Arratia, Ubide eta Zeberion oihartzun handia izan eban grebak eta ia guztiz gelditu egin zan aktibidadea gurean. Denda eta taberna gehienetan ez zituen persianak igo. Herrien artean, desbardintasunak egon ziran. Holan, Igorren eta Diman dana zarratuta egon zan, Zeberion barriz grebea ez zan erabatekoa izan. 5. orrialdea



ZEBERIO

Aurrekontuak onartu dira

2012rako udal aurrekontuak onartu ziran martiaren 27an, Bilduren botoakaz eta EAJ-PNVkoen abstentzioagaz. Aurrekontu honeek gizarte ekintzarako, nazinoarteko alkarlaguntzarako eta Udalbiltzarako diru partidak sortu ditue. Zinegotzientzako, San Antolin jaietarako eta protokolorako partidak, barriz, txikitu egin dira. 6. orrialdea



KANTU HERRIKOIAK

NEURE TXIKI
POLITA

(Sehaska kantea)

Neure txiki polita
zelan zara bizi?
zortzi egun honetan maitia
etzaitut ikusi.

Badakit zabizena
neugandik igasi,
eztutzudela artzian maitia
sentimentu gitxi.

Pasetan nazanian
zeure ateetatik,
negarrak urtetan duz maitia
begi bietatik.

Ez dago larrosarik
arantzarik bage,
amodiorik ez da maitia
penarikan bage.

Ama zeuriak neuri
bidean topaute,
ez deuste eiten berbarik maitia
burue buelteute.

Ama zuriak neuri
berba ez eiteko,
ze palazio ete deuko maitia
zeuri emoteko.

Palaziorik ez deuko
neuri emoteko,
baia jenioa deuko maitia
halantxik eiteko.

Palazio eder bat
hatxaren ganian,
ez da euririk sartzen maitia
aterri danian,
ez da haizerik sartzen maitia
ez dabilenian.

Neure txiki polita

Iturria: Eduarda Bilbao Etxebarria (Dima 1905-Arantzazu 1988).

1982an, Arantzazun, Karmen Bernalak jasoa (Labayru Ikastegiko Ahozko Artxiboa).

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak
09:00etatik 22:00etara
Apirilaren 2tik 9ra

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15
Tel.: 94 673 93 22

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

Apirilaren 10etik 15era

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54

22:00etatik 09:00etara

Iruarrizaga. Amorebieta-Etxano

Apirilaren 16tik 22ra

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7
Tel.: 94 631 73 11

22:00etatik 09:00etara

Aranburu-Guarrotxena. Amorebieta-Etxano
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan**22:00etatik 09:00etara**

Carazo. Karmelo Torre kalea 12. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 90 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua
22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era
orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara
30 minuturo, azkenengo 22:15ean

Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era
30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:
06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordu behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era
orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,
Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik
21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago

zerbitzurik.

Artea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta
20:00.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Artea

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.

Zapatuetan ez dago 05:45ekoa.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15
eta 17:45.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15,
14:15, 17:15 eta 20:15.

Bilbo-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15
eta 16:45ean.

Jaiegunetan (Arrigorriagatik): 10:40, 13:40,
16:40 eta 19:40ean.

La Union* 94 427 11 11**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan
dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau

eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.

Babesleak:

Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

bbk



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

www.begitu.org

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Kudeatzailea: Inigo Iruarrizaga.

Erredakzino taldea: Maite Arrizabalaga, Ainhoa Duñabeitia, Maialen Egileor eta Jon K. Zamalloa.

Maketazinoa: Inigo Iruarrizaga.

Publizidatea: Inigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: June Egileor, Maria Rodriguez eta Pablo Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Julen Eskalante eta Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte eta Eneko Iriondo (Dima), Alaia Ozerinjuregi eta Iraitz Sagarna (Igorre) eta Peio Murgoitio (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tiradea: 6.500 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

Ale kopurua 6.500 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

ZEURE BERBEA

Ibilaldi alternatiboa Madriletik

Bai, bai; Madrilek be bere ibilaldi alternatiboak euki leikez.

Horren froga dogu martiaren hamaseitk hamazortzira Arratiako hamar andrak, Areatzako Andren Foroaren inizatibaz, egindako ibilaldia. Horregaitik, lehenengo eta behin, forokoai eskerrak emotea emon deuskuen aukereagaitik.

Martiaren hamaseian hasi genduan ibilaldia, ordu asko geunkazan ikustekoak ikusi eta entzun beharrekoak entzuteko, baina joan be arin joan jakuzan. Plana ederra, Madrilen 1978an feminista, laikoa eta errepublikanoa dan andra talde batek sortutako *Libreria de Mujeres* eta *Entre dos amigas* fundazioaren kide batzuek euren proiektuaren barri izatea. Tartetxo bat hartu, sartu webguneetan Nortzuk Gara atalean, labur, argi eta hunkigarri azaltzen dabe euren historia eta.

Leku biak zoragarriak, bietan Elena Lacerasek azaldu euskun proiektu bien nondik norakoak. Berari entzundakoak baten baino gehiagotan uleak tente-tente ipini jakuzan... Plazerra izan da bera ezagutu ahal izatea; daukan grazia, daukan jakituria, bizi izan dauana ondino zelan bizi dauan eta ondino aurrerantzean egiteko gelditzen danari be aurre egiteko

prest... Eskerrik asko Elena!

Entre dos amigas Fundazioaren etxearen gainean... zer esan? Madrilen erdi-erdian holango leku bat egon leitekela be ezinezkoa emoten dau. Bertara sartu eta beste mundu baten sartzean zarala dirudi. Hori guztia andra talde baten indarrari esker, eta zelan ez aportazino ekonomikoa emoten daben beste askori esker. Euren proiektua autegestinoan oinarritzen da eta. Miresgarria!

Eta zer gelditu jata horretaz guztiaz? Ba egunerokotasunean andron inguruko gaietan eztabaidatuten jarraituteko gogoia, andrakaz batera proiektuetan behar egiteko gogoia, ondo pasetako, disfrutetako, sakontzeko...

Taldean zoragarri pasau dogu, norberaren herrikoentzat eta Arratiako beste androntzat zeozer antolatutea aberasgarria iruditu jata. Azken urteotan egon da saiakerea gauzak batera antolatuteko baina herri batetik bestera mobidutea ondino kostau egiten jaku. Ia horretan jarraituteko kapaz garan, eta dagozan aukerak aprobetxetan doguzan!

Arratiako beste andrak animetan zaituet aitatutako leku horreek bisitetan eta Madrileko andra zoragarri horreen esperientziak entzun eta sentidutera, ze gauza bat da kontetea eta beste bat bizitea.

Ez dot pentsetan errez ahaztuko jakunik alkarregaz bizi izandako momentu hareek.

NEKANE INTXAURZA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo beginu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Azagaria



Gure basoetako animalia hau kanidoen familiakoa da, buztan luzea eta uletsua. Oso zuhurra danez, kazariak zepoa erabilten dabe harrapetako. Arratia inguruan era honetara be esaten da: azagaria, azaria, aizeria (eta holan agoskatuta: aságarie, aségarie, asárie). Baina bada beste izen eder eta ezagun bat mendebaldeko inguruotan: lukia (lúkie). Euskera batuaz azeria da.

ERETXIA

Herri ekimeneko euskal hedabideen erronkak

Zentzu hertsian publikoak ez izan arren, funtzino sozial agerikoa daukagula gogorazogu gura dogu euskal hedabideok, "bai euskerearen garapenean daukagun zeregin funtsezkoagaitik, bai euskal hiztunen komunitatearen barruan komunikazinoa lantzeak eta jorrazteak suposatzen dauanagaitik". Azken 25 urteetan, batez be hezkuntza dala eta, pausu handia emon da euskerearen ezagutzearen eremuan, horretan ez da zalantzarik. Erabileran, aldiz, hizkuntzearen osasuna adierazoten dauan neurgailunik zehatzenean, zailtasun handiak dagoz. Eta gurea lango gizarte moderno baten nekez egingo dira pausuak hedabide sare indartsuik ezean. Azken finean, hiztun komunitate guztiak daukie mundua beren hizkuntzan ikusteko eta kontetako premina, eta euskal hedabideok giltzari dan zeregin horren muinean gagoz. Euskeraz ez badogu egiten, beste hiztun komunitate batzuek egingo dabe gure orde, gaztelera, frantsesez edo ingelesez.

Sektorearen pisu sozial eta kulturalagaz batera, ekonomikoa be ekarri gura dogu gogora: euskerazko hedabideen lana 450.000 lagunakana heltzean da, eta horretarako 600 langile baino gehiago dabiz beharrea 100dik gora hedabidetan. Guztira 27 milioe eurotik gorako aurrekontua mobiduten dogu urtean, eta 7 milioe eurotik gorako ekarpena egiten dogu diru publikoetara, gizarte segurantzia eta zergen bidez. Ikuspuntu horretatik be, gure jardunaren garrantzia azpimarratu eta kontuan hartua izan daiten eskatzen dau sektoreak.

Ezagun da Informazino eta Komunikazino Teknologien hedapenak zelako krisi sakona ekarri dauan mundu osoan komunikazinoaren sektorera, eta 2008az geroztik bizi dogun krisi ekonomikoak aurreko hori gehitu

BEGITU

Eta beste 48 hedabide

besterik ez dauala egin. Mundu mailan zein gure artean be, agerikoak dira ondorioak, gogoratu besterik ez dago azken bi urteotan bidean geratu diran euskerazko komunikazino proiektuak: Ttipi-Ttapa Telebista, Geu Gasteiz, Txaparro, Esan-Erran Irratia, Nabarra...

Aldi berean, azpimarratzekoa da euskal hedabideok inguruko beste hizkuntza handietakoak baino hobeto egiten gabilkozala aurre krisiari. Azken finean, ohituta gagoz krisi batean aritzera, eta ondo baino hobeto dakigu bedar motzean ibiltea zer dan.

Kontuak kontu, euskal hedabideok azpimarratu gura dogu testuinguru zail horretan etorkizunari buruzko gogoeta estrategikoa alkarregaz egiteko ahalegina, eta eskertu Gipuzkoa Berritzen-Innobasquek gogoeta horretan lagunduteko erakutsitako prestutasuna. Alkarlan horren emoitza hedabideak sinatu dogun dokumentua da. Agiriak sektorearen gaur egungo argazki zehatza aurkezten dau eta, horretan oinarrituta, aurrera begirako erronka nagusiak proposatzen ditu. Erronka horreek honela laburbildu leitekez:

- **Negozio eredu eta lan baldintzak.** Hedabideok inbersino handiak egin behar doguz (eta egiten gabiz), batetik teknologiak eragindako negozio ereduaren aldaketari aurre egiteko, eta bestetik bertan diharduen langileen lan baldintzak hobetzeko.

- **Salmenta, kalidadea eta lehiakortasuna.** Atzean ez gertzeko eta bezeroai merezidu daben zerbitzua eta produktuak eskeintzeko, euskal hedabideok ekoizten doguzan produktuen kalidadea eta kudeaketea be hobetu behar dogu. Gaur egungo produktuak estimatzen badira be, salmentan eta merkadu mekanismoen ezagutzan asko

sakundu behar dogu oraindino.

- **Hausnarketea eta ikerketea.**

Etenbako barrikuntzaren aroan, ikerketea eta hausnarketea be ezin doguz ahaztu: euskerazko hedabideak zer garan, zer helburu bete behar dogun, zelakoak garan eta izan behar dogun, audientziak, kanpoko esperientzietatik ikastea eta, helburuak betetzen doazan neurrian, beste hizkuntzetan apliketako moduko esperientzia eta produktuak esportatzea. Hori dana garatzeko, hedabideen behatoki baten beharra argi ikusten dogu.

- **Alkarlana:** sasoi latzai bakarka baino taldean hobeto egiten jakie aurre, eta alde horretatik badogu zer landu, hedabideok geure artean zein instituzinoakaz batera. Sektoreko kideok onartzen dogu alkarren lehiakide garala hainbat eta hainbat kasutan, baina alkarregaz be jardun daikegula guztion onurarako; kooperatibidadea landu behar dogula, alegia.

- **Erakundeen laguntza politikea.** Deialdien sistematik hitzarmen eruedetara joatea ezinbesteko ikusten dogu. Beharrezkoa da erakundeak laguntza politikea egokitzea eta sektorearen inbersinoak eta garapena sustatzea.

Laburbilduz, herri ekimeneko euskal hedabideon ustez garaia da erronka horreei sendotasunez helitzeako, eta beste molde eta bide batzuk jorratzeko, irudimena landuz, gototik arituz eta batez be alkarlanean, hedabideon artean, zein erakunde publikoakaz eta jentarteagaz beragaz be.

Aurkeztutako lan hau, bide baten amaiera baino, bide luze baten hasiera dala azpimarratu gura dogu. Dokumentua sinatzeagaz, herri ekimeneko euskal hedabideen etorkizun hurbila zein urruna bermatu gura dauan alkarlana abiatu dogu, sektore antolatu gisa funtzionetan hasi ahal izateko lehen harria.

Sektore hori eguneratzeko, gogoeta egin gura dogu hedabideok, erabiltzaileak, eragileakaz eta administrazinoakaz batera. Horregaitik, sinatutako dokumentua hartarako prestutasuna agertu daben erakundeetan aurkeztuko dogu, gogoetarako oinari baliotsua izan daitekela. Eta erakundeai, bide horretatik, hausnarketa mahai batera eratzeko deia egin gura deusagu.

BATZ
BATZ, S. KOOP.
Tolosa auzoa, 32
48140 IGORRE (BIZKAIA)

• Trokelgintza
• Automobiletarako Sistemak

Beharrea beharrez,
euskeraz eginez

Erakunde
Batzonen gaitu

MONDRAGON

LUMATUTEN**RAFA UGALDE****Gazte Eguna, gazte ekimena**

Joan dan martiaren 24an Gazte Eguna izan dogu Diman. Aurreko urteetan Arratia aldeko beste herri batzuetan antolatu izan dana, Diman izan da aurtengoan. Hainbat gazte arratiar euki dogu herrian, eta eurek batera gazte giroa zabaldu da.

Holakoak antolatzen diranean, gazte giroagaz batera mesfidantza kutsu bat be zabaltzen da inguruan, gaztetasuna zarateagaz lotzean da-eta askotan, ule luze eta ohikoak ez diran itxurakaz, alkoholagaz eta mariagaz, ardurakokeriagaz...

Gazte Eguna antolatzean baina, guztiz kontrakoa ikusi dogu. Gazteak eurak arduratu dira antolaketeagaz (Udalaren laguntza apur bategaz, jakina), jaiaren osteko garbikuziagaz eta eszenatokia desmonteteagaz. Arduratsuak dirala demostrau

dabe, beraz.

Horrezaz gainera, tabernetara jentea inguratu da, bai eguerdian, bai iluntzean; eta horren beharri-ana badago, egon be. Lehengo egunean, beti Zorrontzako pub baten jabea izan dan lagun batek esaten eustan orain dala gitxira arte biztanleen adin tarte bi urtetan zirala zapatu gauetan: gazteak, eta hogeita hamabostetik berrogeita bostera bitartekoak. Bigarren adin tartekoak aspalditxoan etxean geratzen dira, baina (krisiaren eragina ete da, ala europear bihurtzen gabizala?); ondorioz, hogeita hamarretik bererakoak geratzen dira, gehienbat, zapatu gaua animetako. Kontua da, holan begiratuta, gazteak tabernarietzako diru iturri ezinbestekoa dirala, gaur egun. Eta hori igarri zan Diman.

Aitamen berezia merezi dabe neskak. Antolaketaren ardura neskak hartu eben-eta, edozein gorabehera gertatuta be, neska bat izan da arduradunakaz harremantetan ipinteko loturea. Eta eszenarioa desmontetako be mutil bat eta hiru neska agertu ziran. Aupa, ba, neskak!

Puntu ilun bakarra: frontoia ondo garbitzeko uste baino denpora gehiago behar izan ebela, eta pelota alkatereko umeak ezin izan eben astelehenean entrenau. Dana ezin perfektua izan; baietz hobetu hurrengoan.

ZERTZEAN**JULEN GABIRIA****Vanny ez dago estazio horretan**

Kabinan bikote gazte bat sartu da, ume txiki batekin. Tren kabina handi horietako bat da, erdialdeko Europako trenetan izan ohi den modukoa. Zortzi bat pertsona kabitzen dira kabinetan, baina gehienak hutsik doaz edo familiariekin beteta. Edo ijitoak sartzen dira, edo moja ukrainarrak, edo estudiante pare bat, edo medikuarenera doazen zaharrak. Baina gaur bikote bat sartu da, ume txiki batekin besoetan. Mutilak marokoarra zirudien, Afrika iparraldekoa edozelan ere. Neskak Indiako jendearen traza zuen. Biak beltzaranak eta gazteak. Umetxoak urtebete inguru izango zuen. Ume zuria, ezin zurbilagoa.

Paulina, esan du mutilak umeari begira, baina neskak buruarekin ezetz egin du. Diana, baina neskak keinu zatarrak egin du ahoarekin. Neskak esan du Anastasia, baina umeak ez du zirkinik egin, eta mutilak Pamela proposatu du, baina umeak berdin segitu du. Mutilak esan du Sabrina, eta umeak begirada altxatu du, baina Indiako nes-

kari ez zaio gustatu, eta Kassa izan da hurrengo izena, eta gero Annette, Alex, Marushka. Horiek eta gehiago aipatu dituzte, eta ez da ezer gertatu. Azkenean, neskak Vanessa esan dio, ku-ku Vanessa, esan dio gozo-gozo, eta umeak, orduan bai, begiak altxatu eta irribarre egin du. Algaraka hasi da gero umea. "Vanny! Vannuska!" errepikatu du Indiako neskak, pozik, eta umeari gustatu egin zaio, eta jolasean hasi da hankatxoekin eta besotxoekin.

Gero hirurak trenetik bajatu dira eta neskatoa ordurako Vanessa deitzen zen. Lurra zapaldu bezain laster, gazteek alboetara begiratu dute eta presaka desagertu dira, umeari maite-maite eginez. Handik urrun, beste estazio batean, senar-emazte zuri-zuri batzuk euren alabaren bila dabilta, desesperoan, bazter guztietan begira. "Katherina! Kathy! Kathiuska!" egin dute oihu, alfer-alferrik. Baina Katherina ez dago estazio horretan. Are gutxiago Vanessa.

* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eremuan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Kultur Etxearen ondoan bizi da Romeo. Jatorri afrikarreko Arteako perkusionista honek noizbehinka tanborrak ateratzen ditu eguzkitara. Musikeak, izaki bizidunak legez, eguzkia behar dau, antza, bizipoza transmitiduteko.

Sentimentuak adierazoteko balio handia dauka musikeak, duda barik, baina tanborrak lotura berezia daukie bizitza eta heriotzeagaz. Bihotza tanbor txiki bat da eta honen musikari esker bizi gara. Baina tanborrak gerrara deitzeako be jotzen dabe: beldurra kentzeako, adrenalina igoteko... tanborren hotsak burrukarako prest egoteko ezinbestekoak dira.

Gerra tanborrak.

Bilduta eta ilaratan, tanbor honeen isiltasunak taupada hotsak eta gerrarako deiak gordetzen ditu. Iraultzaren doinuak be bai, akaso.




Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Gorosti
LORAZAINTZA

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscl.com

 **agoa** Ortodontzia
hagin klinika Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aidedoa Odontologia

Bidebarri 1, behea
48140 Igoine-Bizkaia
T. 94 631 50 39

Marina Urigoitia MD
R.P.S. 25/06

 **expert** ARRATIA

E-posta: expertarratia@cordevi.com
Lehendakari Agirre, 16 Tel. 94 673 60 55
48140 IGORRE (BIZKAIA) Fax 94 631 52 89


ASESORÍA
Gorbeialde

Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza

Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

ARRATIA

Arratia, Ubide eta Zeberio geldituta greba egunean

Arratian Ubiden eta Zeberion, Bizkaia osoan legez, oihartzun handia izan eban martiaren 29ko grebak.



Igorren martiaren 29ko arrastian egin zan manifestazino jentetsua.

Erredakzioa

Izan be, arlo guztietan eragin oso zabalak izan eban. Ikastetxeak, udaletxeak eta industriak bakarrik ez, oraingoan, denda eta taberna gehienak be zarratu eban.

"Industriak zein merkataritzak guztiz zarratu eban, bat egiteko gaitasuna erakutsiz" azaldu deusto BEGITURI Alex Azpiri LABekoak.

Dana dala, herriz herri begiratu ezker, desbardintasun batzuk egon ziran. Igorren % 100 zarratuta egon zan, Arantzazun be bai, Diman be, udal iturrien arabera, "dana zarratuta: udaletxea, eskolea, dendak, tabernak...",

Lemoan ia dana, Zeanurin "dana zarratuta taberna bat izan ezik" eta Ubiden "dana zarratuta: tabernak, udaletxea, medikuaren konsulta..." udaletxetik BEGITURI azaldutakoaren arabera.

Areatzan taberna gehienak zabalik egon ziran, ez osterako mertzioa. Bedian ia dana zarratuta egon zan eta Artean be bai.

Zeberion, barriz, greba ez zan erabateko izan. "Udaletxea ez zan zarratuta egon, gitxieneko zerbitzuak egon ziran. Farmazia, dendea, Herriko Taberna eta zerrategia zabalik egon ziran. Ez, osterako, medikuaren konsulta, batzokia, ludotekea eta eskolea".

Garraioari eta Osasun Zentroari jagokienean, legeak ezarritako gitxieneko zerbitzuak bete ziran.

Istilurik ez

Piketeak bildu ziran goizeko 05:15ean Igorren, baina "neurri baten alperrik, argi egoan eta gitxi izango zirala zabalduko ebanak. Jentek konbenziduta egin dau greba" dinoe Igorre sarean webgunean.

Arrastian, manifestazinoa egon zan Igorren. "Murrizketa, erreforma, inposaketei aurre egin!" inoan pankartearen atzean, 350 eta 400 lagun bitartean batu ziran, aspaldion Arratian egin dan manifestazino jentetsuenean.

ARRATIA

Mankomunidadearen "gardentasun faltea" salatu dabe Bilduk eta Alkarlanien-ek

Arratiako Bilduk eta Ubideko Alkarlanien-eko ordezkariak mankomunidadearen "gardentasun faltea" salatu dabe prensa ohar baten bidez.

Erredakzioa

"Herritarrek jakin egin behar dabe administrazinoa zertan dabilen. Administrazinoak informauta izan behar dauz herritarrek, oposizino barne. Mankomunidadearen kasuan, gardentasun falteagaz jokatzen da oposizinoaren aurrean, denporaz justu bidaltzen dira deialdiak eta ez dago ezelako erreztasunik informazinoa eskuratzeko" dinoe.

Horrezaz gainera, "hurbiltasuna, partaidetzea, behetik gorako funtzionamentua eta eraginkortasuna bultzatu beharko leukezala" AUMk ondorioztatu dabe talde bi honeek.



Mankomunidadeko Bilduko ordezkariak.

Egoera ekonomikoaren gaineko kezka

Mankomunidadearen egoera ekonomikoaren gaineko kezka be agertu dabe Bildu eta Alkarlanien-ekoak "Mankomunidadea, Bizkaiko Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako diru laguntzakaz, herritarren tasakaz eta Arratiako Udalen kuotakaz finantzietan da. Azken urteotan, udal batzuk ez ditue euren kuotak ordaindu. Era berean, aurreko legegintzaldian Dimako Udala hainbat urtetarako hipotekau eban EAJko kudeatzaileak (2,4 milioe eurotako zorra itxita). Egungo Bilduko kudeatzaileak Dimako herriak kuota ordaindu barik ez jarraitzeko, kuota zehatz bat hitzartu eban mankomunidadeagaz, egoera larriaren aurrean ordainketa hau aurrera eroan ahal izateko. Orain, mankomunidadean, urteetako kudeaketa dala eta dagozan zerbitzuak mantentzeko, kuota horreetan interesak ipinteko proposamena egin dabe".

LEMOA

Cementos Lemonak atzera bota dau enplegua erreguleto dosierra

Akordio batera heldu da enpresa komiteagaz eta enplegua erreguleto dosierra atzera bota dau Cementos Lemonak.

Erredakzioa

Ganera, 2010, 2011 eta 2012ko lan hitzarmena sinatu dau. Akordioa martiaren 22an lortu zan.

Beharginak sano pozik agertu ziran dosierra bertan behera geratu dalako, baina baita "enpresek hainbat eskaera onartutea lortu dabelako hitzarmenean: konsumo prezioen indizearen (KPI) araberrako soldata igoreea

eta ultraaktibidadeari eustea" beste gauza batzuen artean.

Lemoako lantegi honetako beharginak 24 orduko hainbat lanuzte egin zituen urtail eta zezeilan zehar, baita mobilizazinoak be enpresak urtailean aurkeztutako dosierra atzera botateko eta lan hitzarmena sinatuteko eskatzen.

Enpresa komiteak eskerrak emon eutsezan Lemoako Uda-

lari eta herritarrai erakutsitako alkartasunagaitik.

Enpresa komiteak eskerrak emon eutsezan Lemoako Udalari eta herritarrai



Cementos Lemona.

ARANTZAZU

Gazteak Gazte Txokoaren erabilera araututeko hitzarmena onartu dabe**Erredakzioa**

Arantzazun dagoan gazteentzako lokalaren erabilera araututeko, Gorbeialden behar egindako teknikari baten laguntzeagaz, hitzarmena prestatu dau Udalak eta gazteak onartu dabela dino Begoña Llanos Arantzazuko alkateak. "Orain arte, giltza emon eta hor egon dira, beste barik. Orain, erabilera aktiboa bultzatu gura dogu, gazteak ekintzak egin daiezan bertan".

Proiektu honen arabera, gazteak alde aurretik eskatu beharko dabe lokala taldeka eta ekintzaren bat aurrera eramateko. "Taldea naturalak esango deuskue

zein egunetan eta zein ordutan interesetan jakien lokala". Txokoa 14 eta 22 urte bitarteko gazteak erabili daikie, baina 14 urteko batek eta 20 urteko beste baten interesak desbardinak dira. Hori dala eta, taldeak eskatuta eta gazteak eurak egindako programa batez erabiliko da Gazte Txokoa hemendik aurrera.

Egokitze lanak

Horretarako egokitze lan batzuk egingo dabez. "Jubiladuen lokalagaz batera inaugurau zan baina gazteen txokoko altzariak birritan barriztu doguz. Izan be, ez da bardina jubiladuen eta gazteen gauzen erabilera" dino alkateak.

ARANTZAZU

Igaz haur eskolea izateko erositako lokala, aurten egokituko dau Udalak**Erredakzioa**

Igaz haur eskolea egiteko lokala erosi eban Arantzazuko Udalak, eta aurten barrutik egokitu gura dabe. Aurrekontuetan diru partida txikerra izan arren, "proiektuak lehenetsuna dauka, gure konpromisoa da eta" azaldu deutso BEGURI Begoña Llanos Arantzazuko alkateak.

EAJ-PNVren aldeko lau botogaz eta Bilduren kontrako 3 botogaz onartu ziran Arantzazun 2012rako aurrekontuak. Aurrekontu honeetan 12.000 euroko partidea dago haur eskolearen-

tzat. "Badakigu diru gitxi dala, baina Bizkaiko Foru Aldundiari diru laguntzea eskatu deusagu". Igaz be, haur eskolarako lokala erosteko BFAko diru laguntzea izan ebela dino alkateak.

Horregaz eta "daukagun soberakinagaz" egokituko dabe lokala.

Ehun metro karratu

Igaz BFAko diru laguntzeagaz erositako lokala "Zelaian dagoan ehun metro karratuko hutsik dagoan bat da". Haur eskolen partzuergoak eskatutako baldintzak betetzeko udal aparejadorearen laguntzea euki eben erosterako orduan.



Arantzazu.

ZEBERIO

Aurrekontuak onartu dira

Zeberioko udaletxea.

Erredakzioa

Martianen 27an onartu ziran 2012rako Udal Aurrekontuak Zeberion, Bilduren aldeko botoakaz eta EAJ-PNVkoen abstentzioagaz. Alkatetza Bilduk dauka Zeberion eta modu parte-hartzailean egin gura izan dabez aurrekontuok. Hori dala eta, batzar askotatik pasau behar izan dira udal proposamena egituratzeko.

la miloe eta erdi euro mobiduko dabez aurrekontu honeek. Gehiena gastu arruntetan joango da, baina partida batzuk be sortu ditue, gizarte ekintzarako, nazinoarteko alkarlaguntzarako eta Udalbiltzarako, hain zuzen

be. Euskerarako be diru gehiago egongo da. Diru gitxiago egongo da, barriz, zinegotzientzat, San Antolin jaietarako eta protokolorako. Azkenengo partida hau erdira bajatuko da.

Iturondoko etxebizitzak

Aurrekontuez gainera, beste gai batzuk be tratau ziran 27ko bilkuran. Alkatetzak jakinarazo eban, nahiz eta baldintzak bat be estuak ez izan, sei etxebizitza bakarrik hartu dirala eta beste sei hutsik geratu dirala. "Konponbide bat topau beharko da eraikuntza enpresak atzera ez egiteko" esan eban Bilduko zinegotziak.

UBIDE

Kale argi guztiak konsumo gitxikoak**Erredakzioa**

Eusko Jaurlaritzaren Energiaren Euskal Erakundearen (EEE) diru laguntzeagaz, Ubideko Udalak herriko kale argi guztiak aldatu zituan martiaren bigarren hamabostaldian energia aurreztuteko asmoz. Hori dala eta, *ecoled* sistema erabilten daben farola barriak ipini dabez energia eraginkortasuna hobetuteko eta argindarraren fakturan gitxiago ordainduteko, BEGURI Joxan Pagola Ubideko alkateak adierazo deusaren arabera.

IGORRE

Terrorismoa goratzeagaitik lagun bi inputauta**Erredakzioa**

Martianen 21ean Ertzaintza agertu zan, Axular Kultur Elkartearen tabeman. Tabemaria identifikau eben eta lokalari argazkiak atera eutsiezan. Tabemariari esan eutsien inputauta egoala terrorismoa goratzeagaitik, Dignidad y Justicia sartutako salaketa baten ondorioz, lokalean egoazan kontu batzukaitik (preso eta erbesteratuen argazkiak..).

23an barriro agertu ziran, eta lokalaren aurreko hormako pintada batzuk estali ebezan. 26an alkatetako presidentea be inputau eben tabemaria inputau eben arrazoi bardinagaitik. Hurrengo astean presoan argazkiak daukiezan kartelak kentzean ibili ziran.

ZEBERIO

Zer Barri Udal aldizkaria sortu dau Udalak**Erredakzioa**

"Zeberion badago barririk. Dannon artean eta etenbako, barriztuten dogu gure herria eta udaletik aldaketa horreek jaso gura doguz, danok jakitun egon gaitzean gure herrikideak zer egiten daben". Holan azalduten dabe aldizkariaren arrazoia lehenengo zenbakian. Zeberion Zer Barri hiruhilekoa izateko asmoz sortu da eta euskeraz eta gaztelaniaz idatzita dago.

"Testuak udaletxean idatzi eta inprenta batera bialtzen doguz, jentea informentako beste modu bat jorrotuteko helburuagaz" azaldu deutso BEGURI Peio Sagasti udaleko komunikazio taldekoak.

Aldizkariak egindako gauzen barri eta Udalbata eta komisi-noak hartutako ebazien barri emoten dau. Baita aurrera begira egingo danaren barri be.

IGORRE

Igorreko autoeskoletan gidabaimena euskeraz**Erredakzioa**

Urtean zehar B gidabaimena ateraten daben herritarren % 85 inguru 18-20 urte bitarteko gazteak dira. Gurean adin horretako gazteak D eredu egiten dabez ikasketak eta eskolaz kanpoko jardueretan, kirol arloan eta antzeko jardueretan euskerazko eskeintzea jasoten dabe. Halanda be, gidabaimena aterateko orduan, askok oindino be gaztelaniaz egiten dabe azterketea. Hori holan izanda, bultzada emon gura izan deutso Igorreko Udaleko Euskera Zerbitzuak eta 2011n herriko autoeskola biekaz, Arratia autoeskolea eta Garrantxe autoeskolea, alkarlanean gidabaimena euskeraz aterateko kanpaina martxan egon da.

"Azterketa teorikoa euskeraz egiten dabenak biaje baten zozketan parte hartu dabe eta saririk lortu ez badabe be, gure aitortza egiten deutsegu Igorreko autoeskoletan gidabaimena euskeraz atera daben ikasleai" dino Amaia Arauzo Igorreko Euskera Teknikariak.

AREATZA



Areatzako plaza.

Aisialdirako zerbitzu barriak

Areatzako Udalak suspertzaileak kontratau eta zerbitzu barriak ipini ditu ludotekan, Gazte Lekun, Ikasgelan eta jubilaudentzat.

Erredakzioa

"Dinamizatzaile zerbitzu barriak martxan ipinteko lehiaketara aterata eban Udalak urte hasieran eta aurkeztutako eskeintzak aztertu ondoren, Suspergintza alkartearen zuzen bidez onena lortu eban. Alkarte honen ardurua lan-boltsa ateratzea eta aukeraketea egitea izan da. Udalak, kontratatutako orduan herriko gazteak lehenetsuna izatea proposatu eban, bertakoak hartu-emon zuzenagoa daukielako herriko gazteak eta herriko errealidadea hobeto ezagutzen dabelako" azaldu deutso BEGITURI Sara Gutierrez kultura zinegotziak.

Suspergintza Elkartek Programaren arduradun pedagogikoa izentau dau. Honek zerbitzuen arteko koordinazio lana egingo dau: programen gaineko informazioa prestatu, planifikatu, materialak eta hornidurak kudeatu eta azken balorazioa eta memoria egin.

Gainera, "belaunaldien arteko ekintzak bultzatu gura doguz, hau da, zerbitzuen arteko hartu-emonak" dino zinegotziak.

Haur eta gaztetxoentzako txokoak ikasturtean

Ludotekea, Gazte Lekua, Liburutegia eta KZ gunea eta jubilaudentzako dinamizatzailea urritik maiatzera egongo dira eta ugerlekuak zabaltzen diranean, zarratuko dira.

tuko dira.

Ludotekea martiaren 26an zabaldu zan. Lau eta hamaika urte bitarteko umeentzat da eta astean behin programautako ekintzaren bat egongo da. Ohiko ordutegia: 17:00-19:30 da baina Aste Santuan eta Gabonetan, goizez egongo da zabalik.

"Herriko gazteentzat aisialdi sortzaile eta parte-hartzailea garatzeko lekua eskeintzeko asmoz, Gazte Lekua barikuetan 19:00etatik 22:00etara eta zapatuetan 19:00etatik 23:00etara egongo da zabalik" dino Gutierrezek. Gazte Lekua hamabi eta hamazazpi urte bitarteko gazteentzat da, eta bertan begirale-suspertzailea egongo da.

Liburutegia eta KZ gunea, barriz, 16:30etik 20:00etara egongo dira zabalik.

Eta ikasturtea amaituten danean udalekuak antolatuko dira. Izena emateko epea maiatzean zabalduko da. Bagilan edo garagarriean 15 egunez izango dira udalekuak, astelehenetik barikura, 09:00etatik 14:00etara.

Jubiladuen intereseko jarduerak

Nagusien interesekoak diran jarduerak proposatu eta beraiek proposatzen dabean ekintzak martxan ipinteko, dinamizatzailea nagusiak alkartuko da jubilauden taberna bariku guztietan 12:00etan.

ZEANURI

Areatzako gazte bat hil da Zeanuriko putzu baten bainu bat hartzean

Erredakzioa

Ertzaintzaren urpekariak, Gorka Ibarruri Areatzako 24 urteko gaztearen gorpua erreskatau eben martiaren 29an Undurragako presatik gertu dagoan putzu batetik. Ertzaintzak jakitera emon

dauanaren arabera, gizona putzu baten sartu zan uger egitera eta ito egin zan.

Gaztea bainua hartu eta agertutuen ez zanez, senitartekoak bila joan ziran eta erropak bakarrik topau zituen. Orduan, SOS Deiak-era deitu eben.

Larrialdietarako teknikari baten Ertzaintzaren urpekari taldea putzu haretara bidali eban orduan. Ertzain bi sartu ziran putzura eta laster topau eben gaztearen gorpua. Medikuek egiaztatu eban gizona hilda egola.

IGORRE

Mihiluze txapelketea hasi da

Erredakzioa

Martiaren 30ean egin ziran Institutuko kanporaketakaz emon jakio hasierara Mihiluze Txapelketari. Igorreko Kultur Etxea gazte bete zan hizkuntzeagaz abileta nor zan erakusteko. Geletan egin dabean kanporaketetatik ordezkariak aukeratu ostean, hamabost bikote lehiatu ziran. INBIU eguneko finalerako hiru finalistak esfortzu handia egin behar izan eben, maila altua egon zan eta. INBIU egunean alkarren artean lehiatuko diranak dira: Peio Urieta eta Unai Ayarza; Uxune Cantalejo eta Laida Perez de Mendiola eta Koldo Errekarri eta Maddi Zelestino.

Herritarren lehenengo kanporaketea ez zan ez atzean gelditu. Bederatzi bikotek, zein baino zein abiltzako, hizkuntzeagaz daukien abiltzia erakutsi euskuen. Lehenen-

go hiru bikoteak urduri baina tinko barreak eragin ebezan publikoaren artean. Bigarren txandakoak gazte-agoak adinean, gaztetasunak berezkoa daukan eritimo bizia erakutsi euskuen. Eta azken txandakoak, euki eben saiorik gaxena jentearren

erretxian eta txalotuenak eurak izan ziran. Urri lehenengoaren 8an alkarren artean lehiatuko diranak dira: Irati Astondoa eta Irati Bernaola; Maialen Etxebarria eta Maialen Madariaga eta Jon Aldeiturriaga eta Jose Mari Fernandez.

Giro ona, euskera protagonista eta herritarrak parte hartzaile. Hurrengo kanporaketea maiatzaren 19an izango da, Kultur Etxean arrastiko 18:00etan.



Noka taldeko Laura Ruiz eta Idoia Legarreta Mihiluzen.

publizidadea
94 631 73 14 eta 649 979 115

www.begitu.org

Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com

**belagorri**

mediku naturista
argaltzeko terapia
kosmetika naturala
elkagai biologikoak
zeliakentzat elkagaiak
estelizena

Zamako, 9 - 48960 Galdakao
94 600 21 12 - 94 600 87 56
L. Agirre, 9 - 48140 Igorre
94 631 14 39

begitu **10**
urte
arratia ubide zeberio

BEGITU 10 URTE

2002ko apirilean agertu zan aldizkari itxurako lehenengo BEGITU. Hamar urte honeetan euskerazko hedabideen konstelazioa aldatu egin da guztiz, baita Arratiako informazioa hedabideotan, eta BEGITU bera be bai. Hamar urte honeetan, BEGITUK ia bikoztu egin dau emoten dauan informazioa, hedabideak gure eremuko barriak emon daien lagundu dau eta bertako euskeran idazteko eredu bat be definidu dauakoan gagoz. Bidea egin dau eta bidea egiten jarraituko dau. Sasoi honetako erronka barriai aurre egiteko prest dago BEGITU.

Erredakzioa

Euskaltzale talde plural batek sortu eban BEGITU. Ganoraz Euskera taldearen ekimenez sortu zan ha taldea. Oihane Barrenetxea, Urtzi Barrenetxea, Iñigo Iruarizaga, Hektor Rodriguez eta beste batzuk izan ziran orain 10 urte betetzen dituan aldizkari honen sortzaileetako batzuk. "Topagunetik galdetzen euskuen ia ez ete genduan aldizkariarik martxan ipiniko. Gure ustez hutsune bat egoan, beste hedabideetan ez zan apenas Arratia agertzen eta. Orduan, Igor Estankona, Nagore Amondarain eta beste batzukana jo genduan. Gure artean eta Topagunekoakaz hainbat batzar egin eta herri guztietan proiektua aurkeztu genduan, udalakaz be berba egin genduan... eta ikusi zan posible eta bideragarria zala BEGITU sortzea" azaldu dau Iñigo Iruarizaga sortzaileetako eta, gaur egun, BEGITUREN kudeatzaileak.

Hamar urte beranduago, Arratia, Ubide eta Zeberioiko barriak jarraitu daikeguz Bizkaiko hedabide handietako orrietan eta albistegietan. Horregaitik, helburu eta erronka

barriak ditu orain BEGITUK. Bidea zabaltzen jarraituko dau eta Arratia, Ubide eta Zeberioaren presentzia hedabideetan berrmatzen. "Helburua beteten gabiz. Izan be, helburua aldizkaria bera zan, bertako barriak bertako euskeran emoteko" dino Urtzi Barrenetxea Zertu Kultur Elkarte zuzendaritza batzordeko idazkariak.

Hamabostekaria eta interneten

Hilabetekaria sortu zan eta halaxe izan zan 2008ko urtailaren 71 zenbakira arte. Harrezkerotik hamabostero ateratzen da, garagarria, abuztua eta urri lehenengoan izan ezik. Urtean 21 zenbaki. Dana dala, aurtendik aurrera urri lehenengoan be zenbaki bi ateratea dago aurreikusita, hau da, urtean 22 zenbaki ateratea.

Hilabetekari izatetik hamabostekari izatera saltoa BEGITUREN historian mugarrietako bat da. Hori egin ahal izateko itxurea aldatu behar izan eban aldizkariak, papel merkegoa eta egunkariak izaten daben formatoa hartuz. Lehenengo hamabostekariak 12 edo 16 orrialde

Hamar urte, hamar herri, hamaika barri



BEGITU hamabostekari bihurtu zaneko 2008ko urtailako zenbakia.

Zugaitik BEGITUten dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com
Lehendakari Agirre, 8 behea
48140 Igorre
Tfnoa: 94 631 80 04

Etxeko tartak
Tarta gozoak eta gazak
Osagaiak naturalak
Enkarguak egun bat aurretiaz
etxeko Tartak.jimdo.com
94 631 23 26 - 653 749 985
Elexalde 15, Beda

Bizkaifisios SLk bi zentro ditu
Fisioterapia Zentroa Igorre
Elexalde 4
Telefonia 94 631 55 08
Andra Mari Klinika
Fisioterapia Zentroa
Pontzi Zabala 1, Galdakao
Tel/faxa 94 457 23 64
www.bizkaifisios.com

arratiako instalazioak s.l.
Berokuntza - Iturgintza - Gasa
Aireztatze sistemak - Aire zurgitze zentralizatuak
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak
Igorreko Industriales, Pab. 07
Tel/Fax 94 673 62 76
819 734 616
48140 Igorre Bidea

ellaURI HOTELA
Naturazko ospitaleritza
Landa Turismoa
Erromatar Zerbitzuak
Aitzusta 38, 48144 ZEANURI | +34 946 317 888 | ellauri.com

GALANTA
Barrutik jarzteko
Zugandik sano hurbil
Lehendakari Agirre 25, Igorre
Telefonia: 94 631 90 08

Zer da Zertu kultur alkartea?

Zertu Kultur Elkartea BEGITU aldizkaria sortzeako sortu zan eta Zertuk hartzean ditu aldizkariaren gaineko ebatziak. Hamar urte honeetan, BEGITU ateratzeaz gainera, gure eremuan izan diran kultura proiekturik garrantzitsuenetan parte hartu dau, Arratian dagozan beste kultur alkarteakaz alkarlanean, produktuak sortuz eta bertako idazleen liburuak argitaratuz, beste gauza batzuen artean.

Nortzuk gara

Zertu Kultur Elkartek 43 kide ditu, Arratia, Ubide eta Zeberioako. Oihane Barrenetxea da Zertuko presidentea, Aitor Erdozia presidenteordea, Urtzi Barrenetxea idazkaria eta Jürgen Lange diruzaina.

Zerturen produktuak

Orain arte ateratakoak:

- Gaizka Amondarainen *Ortozik* liburua.
- *Arratiako idazle aintzindarien antologia* eta *Arratiako euskal idazle aitzindariak* liburuetan kolaborau dau.
- Angel Larrea eta Juan Rekalderen *Arratia Inguruko Hiztegia* argitaratzen kolaborau dau.
- Iker Yurrebasoren *Ametz* eta *Haizea aurpegian* liburua.
- BEGITU eremuko postal zaharren bildumea.
- Jürgen Lange eta Jurek Ziemkiewiczek itzulitako Heinrich Hoffmannen *Peru Tximaluze* liburua.
- Luis Iruarizaga abesbatzaren 25. urteurrenean ateratako CDan kolaborau dau.
- BEGITUREN kamiseteta.

Maiatzaren 5ean, Arratia Musika Eskolako 25. urteurreneko ekitaldian aurkeztuko dan liburuan be parte hartu dau Zertuk. "Liburu horretan Musika Eskolako historia eta Ruper Lekuek beste arratiar batzuekz batera orain 30 urte baino gehiago batutako Arratiako kanta zaharren bildumea jasoten da" azaldu dau Iruarizagak.

Begitu-lagunak

396 familia, norbanako, edo alkarte dira proiektuagaz bat egin eta laguntza lez urtero kuota bat ordaintzen dabenak, aldizkaria etxean doban hartu arren. Zertuk ateratako produktuak doban jasoten dabez.

Webgune barriztua
aurkeztuko da apirilaren
20ko hamargarren
urteurrenaren jaiari

Hilabetekari izatetik,
urtean 21 zenbaki
ateratzera pasau da
BEGITU. Hemendik
aurrera, 22 izango dira

izaten zituen. Ehungarren zenbaki aurrera hamasei (batzuetan 20).

Gure aldizkariak ehun zenbaki eta zazpi urte bete zituanean, bere historiaren beste mugari bat ezarri eban, www.begitu.org webgunea sortu eban eta. Herrezkerotik, interneten be irakurri daiteke BEGITU.

"Bidea egiten dabil BEGITU: hedabidea eukiteko beharizana gabiz sortzean eta gero eta beharizana handiagoa, gainera. Hilabetekaririk hamabostekarira eta internetera egin dogu saltoa baina beharizana gero eta handiagoa danez, aldaketa batzuk egin beharko doguz premia hori asetzeko. Momentuz egingo doguna erredazino taldea sortu, beste kazetari barri baten aukerea aztertu eta interneten webgunea barriztutea da" dino Iruarizagak. Erexi berekoa da Barrenetxea BEGI-

TU "erreferentia da Arratian. Gero eta ohitura handiago dago gugana etorteko edozein gertaera edo ekitaldiren barri emoteko" eta hamabostekaria izatea be urri geratu jaku informazino guztia emoteko.

Baina sarritasuna handituteko, lan-taldea be handitu beharko litzateke "ez dakigu urte bat, bi edo zazpi pasauko diran baina gure asmoa astekari bihurtutea da. Eta nork esango deusku telebista bat be ez dogula martxan ipiniko?" dino kudeatzaileak.

Bertako euskerearen normalizazioa

Lehen esandako moduan, helburu bikotxagaz sortu zan BEGITU: bertako barriak, bertako euskeran emoteko, hain zuzen be. Eta euskereari jagokonean be egin dau bi-

dea aldizkariak. Izan be, aldatu egin da BEGITUK erabilten dauan euskera eredu, gero eta normalizauagoa eginez. Bertakoa bai, baina euskera idatzari jagokon mailakoa.

BEGITUREN euskera eredu nahiko definitua dago gaur egun. Hamar urte honeetan, bizkai euskerea normalizetan joan da eta bere lekutxo hartu dau prentsa idatzian eta interneten. Arratiako ereduari jarraituta sortu zan Bizkai euskera idatzia eta gaur egun Labayruk ia normalizatu daukan eredu horretatik lar ez urruntzen saiatzen da BEGITU. BEGITUK erabilten dauan euskerea Labayruk proposatutakoa da, baina gure irakurleak hurrekoa sentiduteko, zonaldeko filologoak adostutako desbardintasan batzukaz.

Dana dala, hizkuntza bat bizirik dagoan zeozer da, etenbarik aldatuten dana. Horregaitik, aldaketa txiker batzuk be egongo dira ondino. "Bizkai euskerak aukera batzuk emoten ditu zenbait gauzatan. Esate baterako, nork eta nori pluralak -ak eta -ai edo -ek eta -ei egin daitezke. Orain dala sei urte, lehenengo aukerea hartu genduan Arratiako idazle klasikoai jarraituz. Izan be, Arratian erabilten dan nori plurala -ari da, eta horren azpian, -ai dago. Baina, akaso gaur egun arratiar gehienak alfabetatuak dagozalako, uste dogu idatzian -ek -ei formak gurago dabezala irakurleak eta aldaketa hori egitea baloretan gagoz" dino Beatriz Azpiri BEGITU aldizkariako kazetari eta Zertuko kideak.

Euskal hedabideen sektorearen eraldaketa

BEGITUREN finantziarioaren zutabe nagusia publizitatea da. "Krisi honek hedabide guztiai eragin deusenean kapaz izan gara diru sarrerak mantenduteko. Eta hori asko da" dino kudeatzaileak. Baina horrek ez dau esan gura luzaroan mantendu ahal izango danik.

Ez hori bakarrik, Informazino eta Komunikazino teknologiak krisia eta erroka barriak ekarri dabez hedabideen sektoreri. "Argi dago prentsa irakurteko modua aldatu egin dala

eta jenteak gero eta gehiago erabilten dituala plataforma digitalak. Ez dakigu hemendik hamar urtera papela desagertuko dan ala ez, baina argi dago gure presentzia interneten indartu egin behar dogula eta beste modu baten egin. Horregaitik gabiz gure webgunea aldatuten. 10. urteurreneko ekitaldian aurkeztuko dogu webgune bariztatua" dino Iruarizagak. "Webgunea parte hartzaileagoa egitea gura dogu. Irakurleagoa papelekoa zein internetekoa irakurtzera bultzatu gura dogu. Osagarriak izan daitezala" gehitu dau Barrenetxeak.

Gainera, jakinda indarrak batuz askoz gehiago lortzean dala, BEGITUK bat egingo dau Topaguneak abian ipini dauan Tokikom enpresea sortzeako ekimenagaz. Topaguneako hainbat hedabidek Tokikom SL enpresea sortu dabe "tokiko hedabideen etorkizuna alkarlanean diseinetako" eta bertan egongo da BEGITU. Enpresa honek hiru helburu ditu: "Esparru komunak eraikitea eta kudeatzea: publizitatea, ekoizpena, teknologia, trebakuntza, bame komunikazino... Solaskidetzeta sendoa lortzea euskerazko hedabideen sektoreagaz eta erakundeen aurrean, eta toki hedabideen integrazino posiblearen diseinua proposatzea eta horren inguruan adostasuna eraikitea" Topaguneatik jakinarazo dabenaren arabera.

Etorkizunak zer ekarriko dauan ez dakigu, baina erroka barriak erantzuteko prest dago BEGITU.

Urteurrena ospatuteko hainbat ekintza eta ekitaldi bat

"Hamar urte, hamar herri, ha maika ekintza" leloa hartuta urte osoan zehar ospatuko dau BEGITUK bere urteurrena. Hamar herrik osotuten dabe BEGITUREN eremua eta bakotxean ekintza bat izango da. Kontzertuak, mendi martxak, berbaldiak... Eta apirilaren 20an urteurreneko ekitaldi nagusia izango da. Zertuk BEGITUREN nobedadeen barri emongo deutso aldizkariaren irakurle fidelari eskerrak emoteko egingo dan jaiari.



Gure Ikastetxeak
Arratiako Herri Ikastetxeak 2 urteik 18ra. Euskalduna, kalitatekoa, herrikoa

- Arratia BHI
Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igoerre
- Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 673 90 65 Faxa: 94 673 90 65 Artea
- Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio
- I. Zubizarreta HI
Tel.: 94 673 60 22 Faxa: 94 673 60 22 Igoerre
- Areatzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza
- Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri
- J.B. Eguskiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa
- Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Haur hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorreko Egarren Hezkuntza, Baxilergoak, Hezkuntza zikloak



JANDONIZ
nagusientzako etxea
residencia para mayores

Jandoniz, 2 - 48390 BEDIA Bizkaia - tel. 94 631 31 30 - www.jandoniz.com



K Kendall Languages

- Trinity College Londonen azterketa ofizialerako matrikulea zabalik martiaren 23ra arte
- Cambridge, EOI, First Certificate... azterketetarako prestaketea

Eltxalde 4 behea - 48.140 Igoerre (Bizkaia) - 94 657 73 48 - www.kendall-languages.com

MENDIA

Alex Txikon
Zaragozako
ospitalean da

Alex Txikon.

Erredakzioa

Martianen 27an Alex Txikon Zaragozako ospitalean ingresau eban izozketak osatuteko. Egun horretan bertan heldu zan Txikon Barajasera Gasherbrumetik bueltan. Aireportuan anbulantzia bat eukan zain Zaragozara erorateko. Zaragozako MAZ ospitalea, izozketak sendatuten espezializauta dago. Egun batzuk egin beharko ditu han Lemoakoak.

Gerfried Göschl, Cedric Hählen eta Nissar Hussein, Txikonen espezialistak, desagertuzat emon dabez eta Gasherbrum I-en geratu dira. Martiaren 16an helikopteroak ibili ziran mendizaleen bila, baina ez eban arastorik topau. Egun horretan, bilatze lanak amaituzat emon zituen eta Txikonen ebakuzinoa hasi zan.

Mendizalea noz etorriko zain dagoz Lemoan.

RUGBYA

Amaitu da denporaldia



San Txismen jokatu zan denporaldiko azken partiduko irudia.

Ainhoa Duñabeitia

Ederto amaitu dabe Arratiko Zekorrek aurtengo denporaldia. Martiaren azken zapatuan izan eban igoera faseko azken partidua. Norgehiagokea errez irabazi arren, ez dabe igoterik lortu. Saikapenean bosgarren geratu dira arratiarrak, puntuak kendu deusez-eta txarto ulertu bategaitik. Taldea ez zan konturatu jokalarik batek ezin ebalu jokatu eta jokatu egin eban. Epailea konturatu zan eta 9 puntuko multea ipini deusie horregaitik.

Hori dala eta, ez dabe igoerarako txartelik lortu. Azken partiduko aurkariak errioxarrak ziran, R.C. RIOJA taldea hain zuzen be. Etxekoak estreinau eban marka-

gailua entsegu bategaz. Bikain ibili ziran arratiarrak partiduan zehar eta azken emoitzen igarri zan; Arratiko Zekorrek 30 - R.C. RIOJA 5.

Giro polita egon zan San Txismen eta partidua betiko pasilo-txoagaz bukatu zan. Zapatukoa partidua berezia izan zan taldeko jokalarik bik eta entrenatzaileak, "Baste"k, taldea ixten dabelako.

Gijonera biajea

Aste Santuaren hasiereagaz batera deskantsua hartuko dabe Zekorrek hurrengo denporaldirarte. Ez dabe partidurik izango, Gijonera biajea egin arte. Bertan egun pare bat egongo dira, bertako talde baten aurka jokatzeko.

FUTBOLA

Jaitsierea
atzeratu gura
dau Lemoak

Maialen Egileor

Real Unionen kontra galdu ezker, Lemoa Hirugarren Mailako taldea bihurtuko litzateke, baina ez zan holangorik gertatu. Barasoainen mutilak 1-0 irabazi eban. Hori bai, ezin izango dabe jaitsierea askoz be gehiago atzeratu. Izan be, 6 jardunaldiren faltan, 17 puntura daukie salbazinoa. Hurrengo partidua Alavesen kontra galdu ezker, Hirugarren Mailako taldea izan leiteke automatikoki, besteak egiten dabenaren arabera.

Holan ba, denporaldi honetan, Federazio Kopa da taldera poza ekarri daiken bakarra. Mallorcako Binissalem taldearen aurka jokatuko dabe finala eta bi partidutara izango da. Joanekoa han izango da apirilaren 12an eta bueltakoa hemen astebe-beranduago, apirilaren 19an.

Arratiako mutilak partidua garrantzitsua euki eban pasa dan zapatuan. Lekeitiora joan ziran saikapenean atzetik eukien taldearen kontra jokatutera. Atzetik, baina bi puntura bakarrik. Beraz, galdu ezker, Arratiak partidua bakarrik ez, lehenengo postua be galduko eban. Ez zan, oster, hori gertatu. 2-3 irabazi eban eta lider izaten jarraituten dabe 5 puntuko aldeagaz orain. Arratiako neskek be antzeko alde daukie bigarren dan Barakaldogaz, 6 puntuko hain zuzen be. Eta alde hori handiagoa izango litzateke azken partidua irabaziko baebe. Baina bana bardindu eban Bizkerreren aurka.

BOLA JOKOA

Bola
txapelketea
aurrera doa

Maite Arrizabalaga

Bola txapelketea aurrera doa eta Arratiako hiru talde dagoz aurtun lehian. Martiaren 31ko tiradan, Boroan, San Migel taldeak irabazi eban eta bakarka ostera Belatxiketa alkarteko Josune Sarrionaindiak. Obak laugarren egin eban eta Lemoak hamabigarren postua lortu eban. Areatzako "Frakazuri" talde barria azkenengo postuan gelditu zan eta holan doa klasifikazio orokorrean be. Lemoa bederatzigarren doa eta Boroako tiradearen ostean Oba azkenengo postuetatik zazpigarrenera igon da. Lehenengo postuan San Migel dago eta banaka be, talde horretako Jabi Izurza doa aurretik.

Hurrengo topaketea, datorren apirilaren 14an izango da Bernagoitiko bolalekuan.



Bola jokoa.

ZEKUTZE
JATEXEA

Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel: 94 631 52 83
zekutejatexa@hotmail.com

indar
instalazio elektrikoak

Bildosola Industrialdea, pab. E 3-4
48142 ARTEA - BIZKAIA
t. 94 655 47 19
indars@indars.es • www.indars.es

CERRO ERAIKUNTZAK

Behoko suetan, harrietan,
azulejoetan... zditua.

Tel: 605 71 64 17
Erreforma orokorrak

Dia %
PEDRO AUTOSERBITZU

Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

Los Chopos
neurritza egindako armairuak

Anda, Los Chopos, 35 (Nogue) Tel.: 94 430 40 94

Esposizioa eta fabrika Lemoan

Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44
www.armariosloschopos.com

FIXMI FODIDENDA JAIONE IRAGORRI

LEHENDAKARI AGIRRE, 5
48140 IGORRE BIZKAIA
Tlf : 94 612 02 41
Fax : 94 612 02 46
fixmikopi@gmail.com

axular
kultur elkarte

Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92
axularke@gmail.com

ekin s.a.
CONSTRUCCIONES

LAN PUBLIKOAK
INDUSKETAK
GARRAIKAK
UR SAREAK
SANEAMENTU SAREAK
BASERI ETA BASOKO BIDEAK
PABELLOAK
URBANIZAZIOAK

Iturizt barrera 8 - 48141 Dima (Bizkaia)
Tel: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25
e-posta: c.ekin@telefonica.net

Pinturas Arratia

Javi Morato
Tel. 628 443 992

MENDIA

Ubideko Bira apirilaren 22an

Erredakzioa

Aprilaren 22an izango da aurten urtean-urtean arrakastatsuagoa dan Ubideko Bira. Betiko moduan ibilbide bi egongo dira: luzea 33 km.koa eta laburra 19 km.koa. Biak sano paraje ederratik igarotzen dira. Ibilaldia amaitutakoan, parte hartzaileak sagardoa, txorizoa eta gaztaia dastatuko dabe herriko plazan giro onean.

Urteerea plazan izango da 08:00etan ibilbide luzea egingo dabenentzat eta 08:30ean laburra egiteko asmoa daukienentzat. Izena egun berean emon daiteke 07:30etik aurrera, 10 euro pagauta, edo internet bidez, <http://ubidekobira.es.tl> helbidean. Egun

berean ez bada, izena emoteko azken eguna apirilaren 19a da, eta ordainketea aurretik egin ezker 7 euro ordainduko dira.

Gainera, ibilbidean argazkiak atera leitezke argazki lehiaketan parte hartzeako. Irabazleak Urbide jatetxean persona birentzako bazkaria edo afaria izango dau sarizat.

Ibilbideak

Ibilbide laburra honako hau izango da: Ubide-Siskino-Oketa-Harrobiak-Mairu-Azero-Atxurdin-Ubide.

Luzea barriz, hauxe: Ubide-Siskino-Oketa-Harrobiak-Mairu-Azero-Gorbeia-Arimekorta-Atxuri-Saldropo-Otxarreta-Urbidegoiti-Motxotegi-Gaztelu-Ubide.



Ubideko Bira.

RAID

Arratiako I. Raid-a Euskal Herriko raid ligan egongo da

Erredakzioa

Xegiba Raid taldeak eta Arteako Kirol Kultur eta Euskera Taldeak Arratiako I. Raid-a antolatu dabe apirilaren 21erako. Raid hau Euskal Herriko I. Columbia Raid Ligan ospatuko diran bost raid-etako bat da. Bikoteka izango dala eta gehienez 70 talde onartuko dirala jakinarazto dau antolakuntzeak. Raid-ak izango dituan probak mendiko bizikletea, trekkinga, espeleologia, patinak (ez da derrigorrezkoa izango), eskaladea (ez da derrigorrezkoa izango) eta orientazio espezifikoa izango dira.

Informazio gehiago eta izen emotea: akktarte.com eta xegiba-zonabike.blogspot.com-en.

Columbia Raid

Raid disziplina askotako orientazio proba da; hau da, mapa eta iparrotzarraren laguntzaz hainbat kontrol puntutatik pasau behar da, mendiko bizikletan, oinez, patinetan, uger egiten eta abar. Normalean, taldeka egiten dan lasterketea da.

"Euskal Herri inguruan Raid-earako dagoan zaletasuna ikusita hainbat alkartek raid-a egitea pentsau dogu, danon artean liga bat sortuz. Honek ez dau derrigortuten proba guztietan parte hartutera, ezta liga orokorrean izena emotera

be. Raid bakotzak bere ezaugarriak ditu eta urte amaieran ondoen ibili diran bikoteak sarituko dira" dinoe Arteako Kirol Kultur eta Euskera taldekoak.

Egitaraua

Aprilak 20, barikua
20:00etan, taldeen harrerea.
21:00etan, lo egiteko lekua zabaldu.

Aprilak 21, zapatua
08:00etan partaideai harrerea.
09:30ean, azalpen teknikoa.
10:00etan, raid-aren hasierea.
15:00etan, lehenengo taldeen helmugaratzea.
17:00etan, helmugaren itxiera.
17:00etan, bazkaria.
18:00etan, sari banaketea.

Raid-aren kartela.

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

ELEKTROARGI ELEKTRIZITATEA
Instalazio elektrikoak • Aberiak
Telekomunikazioak
Material elektrikoak
Juan de Auriagera 1 Behea 48330 Lemoa
Tfnua-Faxa 94 6312576 Mug. 647405115

MERKA LABELA-HARATEGIA

Etseko produktokoak

- Turrizkoak
- Odolesiat
- Bostantzak
- Saltzitrikak
- Hamburgesak

Arratiako produktokoak

- Baserriko okela
- Urtsiak
- Baserriko arrautzak
- Turrizkiak
- Haritzak
- Geroiko fruta eta herrixkiak

*** KIRRU * ILEAPANDEGIA SOLARIUM**
Roberto eta Rosana
Sabino Arana, 38 baxo - 48140 IGORRE (Bizkaja)
• 94 631 92 00

Bar Restaurante Montero
Eguneko menua euskal sukaldaritza, sukaldaritza bolibiarra eta brasildarra
Zelala 19 - Arantzazu - 619 903 653

INCOESA
Tel. 94 631 32 75
Faxa. 94 631 37 66
Bidekoetxe 18 48.390 Bedia

publizidadea
94 631 73 14 eta 649 979 115
www.begitu.org
Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnua 649 86 95 36

Igorren ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Umeen moda 0-20 urte

- Babil
- Ray
- Aranda
- AKC
- Quisqiter
- Arandaga
- Giandala
- Leiz
- Massana

sein
LEHENDAKARI AGIRRE, 23 • 946 319 296
seinmoda@hotmail.com

GARANTXE Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ ZEIN ERDARAZ
Balmusak: A1, A, BTE, B
Lehendakari Agirre 31
Tfnua: 94 631 73 32
48140 IGORRE (Bizkaja)
garantxe@euskalnet.net

ARRATIA AUTOESKOLA
karmela euskaraz zein erdaraz
Garbe, 10 - 48140 Igore (Bizkaja)
Telefonoa 94 631 36 31, Faxa 94 631 70 83
e-posta: unobau@euskalnet.net

ERAKUSKETEAK

Arratia Bilbon ikusgai Anselmo Ginearen eskutik

Jon K. Zamalloa

Maiatzaren 20ra arte Bilboko Arte Eder Museoan Anselmo Ginea margolariak egindako lan pikturikoaren erakusketa interesgarria ikusi daiteke.

Anselmo Ginea (1855-1906) margolaria, uritarra zan, baina baserritar munduaren ohiturak eta tradizioak miresten zituen. XIX. mendearen azken hamarkadetan, beste hainbat euskal margolari legez, lan-inspirazioaren bila Arratia aldera hurbildu zan, modan ipini zan eta. Horren emoitza aitagarria da *Idilio Arratian* izeneko margolana. Honetan, baserria eta personajeen ezaugarriak dira gure bailararen lekuko.

Joera artistiko honeri esker, industrializazioak ekarritako urien

eta herrien arteko amildegia gainditzen saiatzen zan, modernitatea eta tradizioak alkarregaz bizi ahal zirala erakutsiz.

Erakusketaz gain, Museoko *Euskal Artistak* sailean be Arratiako erreferentziak ikusi daitezke.

Gure eskualdearen presentzia Ginea eta beste artista batzuen artean oso garrantzitsua izan da eta horregaitik Arratia Institutuan, Iñaki Elexpe igorretarraren ideari jarraituta, ikerlan bat egiteko asmoa dago: II. Gerra Karlistearn amaieran hasi eta 1936ko Gerra Zibilera arte, Arratia inguruko paisajeak eta personak landu dituen euskal margolarien lanen bildumea egin gura da, irudiak aztertuz eta urte hareetako inguru sozio-ekonomikoan, historikoan eta artistikoan sakonduz.

*Idilio Arratian.*

JAZZALDIA

Jon Artetxe billaroztarrak irabazi dau 47. Heineken Jazzaldiko Kartel Lehiaketea

Jon Artetxe Artabe Areatzakoa izan da Jazzaldiko Kartel Lehiaketaren irabazlea. Guztira 1.333 kartel aurkeztu ziran. Txillidaren familiak Artetxe bere lanagaitik zoriontzeko eskatu deutso antolakuntzeari.

Erredakzioa

Kartel irabazleak, Chillida izenburuduna, 1.200 euroko saria irabazi dau, eta gainera, Jon Artetxeri bere lanak milaka personak ikustea ahalbidetuko deutso; izan be, "Heineken Jazzaldia europar kontinenteko garrantzitsuenetakoa eta tradizio handienetakoa da" dinoe antolatzaileak Jazzaldiko webgunean.

Kartelaren leloa Txillidaren laminek eta grabaduen eragina goraiatzeko aukeratu eban eta 47. zenbakia egiteko Donostiako Haizearen Orrazian topau eban inspirazioa. Urdin koloreak Donostiako kostari egiten deutso erreferentzia.

Kartela hautatu eben epaimahian esparru desbardineta personak hartu eben parte: Mikel Erentxun eta Russian Red (Lourdes Hernández) kantariak, Karnele Soler, orain dala gitxi Makillaje Onenari Goya Saria irabazi dauanak Pedro Almodovarren *La Piel que habito* pelikulan egindako lanarengaitik eta, Lara López, musika-gaietan erreferentzia dan Radio 3 irrati-kateko zuzendariak. Baita, Heineken Jazzaldiko ordezkari bik eta Heineken Espainiako beste bik.

Guztira 1.333 kartel aurkeztu ziran lehiaketara www.heinekenjazzaldia.com webgunearen bidez,

eta hor publikoak bere gustukoek botatu zituen. Hamar botauenak finalera pasau ziran. Beste hamar kartel Heineken Espainak eta Heineken Jazzaldiak aukeratu

zituen. Holan, epaimahaiak kartel irabazlea 20 kartelen artean hautatu eban. Eta hau, Jon Artetxe billaroztarraren Chillida izeneko kartela izan da.

**Kartel irabazlea.**

IKASTAROAK

Igorreko Kultur Etxeko ikastaroak apiletik bagilera

Erredakzioa

Igorreko Kultur Etxeak jakitera emon dauanaren arabera urte honetako bigarren hiruhilabete honetarako antolatu dituen ikastaroak honeek dira: Tai Chi, jantza afrikarrak, argazkigintza

(hasierea eta sakontzen), literatura tailerra, zirko ikastaroa, Photoshop, antzerkigintza (ume eta helduentzako), umeak

musikeagaz olgetan ikastaroa eta gazteentzako laburmetraje ikastaroa. Izena hainbat arinen emon behar da.

Igorreko Kultur Etxea
Lasarte Aretoa



LEHIAKETEAK

Igorreko jaietarako kartel lehiaketea martxan da

Erredakzioa

Urtero lez, Igorreko jai batzordeak 2012ko sanantonioetarako kartel lehiaketea antolatu dau. Parte hartzaileak Arratian bizi behar dira -aurtengo urtera arte Igorrekoak bakarrik parte hartu ahal izan dabe-, eta proiektu guztietan derrigorrez, "San Antonio jaiak 2012 IGORRE Bagilaren 11tik 20ra" agertu behar da. Proiektuak aurkezteko epea apirilaren 27an, 13:00etan amaituko da. Lehiaketak sari bakarra izango dau, 200 eurokoa.

Proiektuok Igorreko Udalaren Erregistroan aurkeztuko dira eta honeen euskarriak, papela, eta ordenagailuz eginda badago CDa, izango dira. Proiektuari ez jako izenik ipini behar eta horregaz batera kartazal itxi bat aurkeztuko da, barruan lehiatzailearen izen-abizenak, helbidea eta telefonoa eukiko dazana. Epaimahaia jai batzordekoak osotuko dabe eta ebatzia apirilaren 30a baino lehen jakinarazoko dabe.

LEHIAKETEAK

Lemoako I. Narrazino Lehiaketea antolatu dau Kultura Sailak

Erredakzioa

Lemoako Udaleko Kultura Sailak Lemoako I. Narrazino Lehiaketea antolatu dau. Bertan lemoaztarrak zein Lemoakoak ez diranak hartu daiek parte eta 18 urtetik gorakoai dago zuzenduta. Narrazinoak apirilaren 23a baino lehen aurkeztu behar dira Lemoako udaletxean edo kultura@lemao.net helbide elektronikora bialdu. Lanok euskeraz idatzita egon behar dira.

Oinarriak eta sariak

Partaide bakotzak narrazino bakarra aurkeztu ahal izango dau eta gehieneko luzeera sei foliokoa izango da.

Sariak maiatzaren 11n bananduko dira eta honako honek izango dira.
Lehenengo saria: 250 euro eta diplomea.
Bigarren saria: 150 euro eta diplomea.
Hirugarren saria: 100 euro eta diplomea.
Lemoako bertako 1. saria: 100 euro eta diplomea.

LEHIAKETEAK

Koldo Etxebarria artista lemoaztarrak Ixatxak 2012 saria jaso dau

Erredakzioa

Ixatxak saria Basauriko San Jose ikastetxeko ikasle ohiak emoten dabe eta aurtan Caritas Basauri eta Koldo Etxebarria artista lemoaztarrari emotea ebatzi dabe

egin daben lana saritzeko. Sari banaketea martiaren 18an izan zan.

Sari asko jaso ditu Etxebarriak, tartean Ertibil saria, eta orain jaso dauana ez da Basaurik Koldo Etxebarriari emon deutsan le-

henengo saria. Izan be, 2008an Basauriko Udalak Arte plastikoen saria emon eutsan Arratiakoari.

Izatearen gaineko hausnarketea

Teknologia informatikoa erabiltza, artista honek izate eta begiratzearen gaineko hausnarketea egiten dau bere koadroetan. Gizakia, begiratzen eta isilik agertzen da osagai arkitektonikoak dituan espazio baten. Argiak eta koloreak gizakia eta bere inguruaren arteko harmonia sortzean dabe.



Koldo Etxebarria lemoaztarrak saria eskuan daukala.

DUNBA

Valdezcaray



Dimako umeak eskietan.

Dimako ikastetxeko 6. mailako ikasleak

Valdezcarayra joateko papela emon euskuenean sano pozik ipini ginan. Danok oso nerbio jarri ginan. Hurrengo egunean

maisua etorri zan Valdezcarayra ez ginala joango esanez, txarto portau ginalako. Baina broma bat zan. Hori esan euskunean barriz poztu ginan. Azkenean heldu zan eguna, zezeilak 27, eta danok etorri ginan eskolara

eskiko erropakaz.

Dimatik zortzi eta erdietan urten ginan hirugarren, laugarren bosgarren eta seigarren mailakoak.

Biajeak ordu bi irau eban baina ez ginan aspertu. "Kun Fu Panda II" pelikulea ikusi genduan, paisajea be ikusi genduan eta baita Gasteizko aireportua be.

Valdezcarayra hamaikak hogei gitxiagotan heldu ginan.

Harrera lekura heldu ginanean egun osorako *fort-faita* hartu genduan eta telesillaz pistetara igo ginan.

Hamaiketan hamaiketako egin genduan, ondoren, materiala alokatu genduan: eskiak, botak eta bastoiak eta azkenean begiraleagaz pistetara joan ginan. Hiru talde egin genduzan eta bi orduz egon ginan monitorea pistetan.

Oso ondo erakutsi euskun, danok ikasi genduan eskiatzen. Klasean lasterketak egin genduzan. Sano ondo pasau genduan. Batzuk lurrera jausi ziran baina inork ez eban minik hartu. Barre asko bota genduzan

Gero atsedena hartu eta barriz eskiatzera joan ginan. Oso ondo pasau genduan lagunak lurrean jausita ikusita.

Lau eta erdietan alokatutako gauzak bueltau genduzan. Etxerako bueltan sano pozik joan ginan. Diman zazpi eta erdietan gengoan, eta han gurasoai bizi izan genduan esperientzia kontatu geuntsen. Barriro joan gura doguuuuu!!!



Umeak eskietako prest.



AGENDEA

APRILAK 3**LEMOA**

11:00etan, Aste Santuko oporretan, apirilaren 13ra arte, ludotekea goizez zabalik egongo da. Egun honeetan ekintza bereziak: eskulanak, jolasak...

APRILAK 6**DIMA**

19:30ean, "Diman etxean gura doguz" presoen aldeko kontzentrazioa.

APRILAK 13**LEMOA**

20:00etan, Lemoako Korralak antolatuta kantu-pote Mailuki tabernan (Arraibi).

APRILAK 14**AREATZA**

23:00etan, Jabier Mañon umoristea Bixer tabernan.

IGORRE

22:00etan zinea *John Carter* Lasarte Aretoan.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta sari banaketea. Lemoatxa (358 m.).

Lemoako Bolo Taldearen txapelketea: Bernagoitin.

APRILAK 15**AREATZA**

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, Arratiako mendiak eta herriak 6. zeharkaldia Areatza-Artea.

IGORRE

17:00etan umeentzako zinea *Aita zontzia naiz*. 19:30ean, zinea *John Carter* Lasarte Aretoan.

Mendirik Mendi argazki erakusketea

Igorreko Kultur Etxeko erakusketa gelan, Ganzabal Mendi Taldearen Mendirik Mendi argazki erakusketea egongo da ikusgai hilaren 16tik 30era.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU**SALGAI**

Altzarien eskeintza berezia, prezio sano bajuak likidazioagaitik. Zatoz ikustera Elxalde 10 behera (Igorre).

DANERIK**AURRESKUA IKASI GURA DOT**

Aurreskuaren Kontrapasa ikasteko eskolak hartzea gura dodaz. Zapatu arrasti edo domekan izan beharko litzateke. Nonor eskolak emoteko prest badago, honako telefono-zenbaki honetara deitzea dauka: 659 059 194.

ESKOLAK EMOTEN DODAZ

DBHko, Babilergoko (ikasgai guztiak) eta Ekipo eta Instalazio Elektroteknikoko eskolak emoten dira. Deitu 659 729 398 telefonora.

LOKALA ALOKATZEN DOT

Lonja edo lokal bat alokatzen dot Diman. Deitu telefono honetara 616 813 747.

GARBIKETAK

Etxeak, lokalak, portaleak, bulegoak... garbitan dodaz. Etxeko beharrak egin eta

adinekoak be zaintzean dodaz. Telefonoa 666 238 081 (Cristina).

ETXEKO BEHARRAK ETA ZAINTZAK

Etxeko beharrak egin, eta umeak eta edadeko jentea jagoten dodaz. Kotxeduna. Mari Karmen 647 067 235.

UMEAK JAGOTEN DODAZ

Goizeko ordutegian umeak jagoteko prest nago. Telefonoa 600 759 434 (Naiara).

LOKALA GURA DOGU

Igorren alokairuan dagoan lokala gura dogun gazte taldea gara. Ahal dala erdigunean. Deitu 662 964 716 telefonora.


Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin edo behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@topagunea.com-era. Mezuak doan dira.

Begitu-lagunen txokoa**Zenbaki honetako saridunak:**

1

Igorreko Udalak emondako Gontzal Mendibilen CDa.

Eduardo Ugarte (Ubide)
Juan Rekalde (Amorebieta-Etxano)



2

Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera John Carter filmarako.

Alazne Ziarrusta (Igorre)
Gonzalo Urigoitia (Plentzia)




Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 10 urte eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Motel. Erdiko bokala. 2.- Abisu. Samarioaren sinboloa. 3.- Insektu txikia. 4.- Boroa. Birritan, hodi. Indioaren sinboloa. 5.- Arra ez dana. Lastodunen familiako landarea. 6.- Birritan, korotza. Txakur. Berrogeta hamar erromatar. 7.- Goratu. 8.- Birritan, txori abeslari. Lehiaketea. 9.- Bat erromatar. Eden.

GOITIK BEHERA

1.- Musika nota. Kopeta. 2.- Lisiba-ur. Kokomarro. 3.- Gatx. Bokala. Letra bat. 4.- Baratza. Dotore. 5.- Letra bat. Hamar erromatar. Truke. 6.- Burua ule barik Heldu. 7.- Euskal abeslari ospetsua zana. Min egiterakoan esaten dana.



Topau antxinako zazpi ume-joko desbardin.

A	R	K	O	L	A	D	A	T	I
S	O	N	G	E	P	U	T	X	A
I	N	K	A	L	E	N	D	I	N
T	A	U	T	I	K	A	E	R	O
X	O	T	Z	A	R	T	E	R	U
K	A	T	E	A	N	E	T	I	Z
O	Z	A	N	D	U	K	T	N	O
G	T	U	K	A	N	A	S	D	A
U	X	X	A	R	B	P	U	O	Z
H	O	F	O	A	M	A	R	L	O
I	K	A	K	N	U	R	E	A	K
G	O	A	D	E	T	R	O	N	A
U	K	R	A	G	I	A	B	E	R
D	A	R	D	U	E	H	N	I	K
O	S	A	T	A	J	O	K	A	Z

AKI MI KO

Igor Menika



Ametzola Landetxea
Ametzola 1-1
48499 Zeberio
629 429 870
www.ametzola.net

bbk =

HERRIKO BENTA
HERRIKO PLAZA
48142 ARTEA (Zeberio)
Tel. 94 631 72 56

Arratia, Ubide eta Zeberioko euskera eta kulturearen alde

Hamabostero Begitu zure etxean eta Arratia inguruko Hiztegia doban

Egin zaitetz zeu be Begitu-lagun

Etxean jasoko dozuz Zertu Kultur Elkarteak ataratako produktuak.
Hamabostean behin, sariketa-zozketan parte hartuko dozu.

Izen Abizenak

Helbidea

Telefonoa E-posta

Kontu korronteko 20 digitoak

Urteko kuota aukeratu:

35€ 55€ 75€

Moztu eta bidali helbide honetara:
Zertu Kultur Elkarte, Herriko plaza 24, 48142 Artea

JON ARTETXE

"Zeozer indartsua eta aldi berean sinplea egin gura neban"

Donostiako 47. Heineken Jazzaldiko kartel lehiaketean irabazi dau Jon Artetxek. Artetxe Areatzakoa da, 26 urte ditu eta igaz amaitu zituan Arte Ederretako ikasketak.

Gaur egun diseinu grafikoko lanak egiten ditu Onin Grafik Bilboko estudioan eta ilustrazioa da bere bokazioa.

Saria ofiziala egin zan egun berean egon zan BEGITUgaz Artetxe. Pozarren egoan egilea, arrazoi osoz.

Erredakzioa**Hau ez da jaso dozun lehenengo saria.**

Ez. Herriko jaietako kartel lehiaketetan askotan izan naz irabazlea. Areatzako jaietako kartel lehiaketetan, hain zuzen be. 2004an, 2006an, 2007an 2008an eta 2009 urteetan irabazi dot.

Zer suposatzen dau sari honen zuretzat?

Asko. Curriculemerako batez be, bultzada handia da. Sariak izena dauka eta Europa mailan oso errekonoziduta dago. Itzela da niretzat, sinestezina.

Diseinu grafikoko lanak egiten dozu behar, ezta?

Igaz amaitu nebazan Arte Ederretako ikasketak Leioan eta orain Onin Grafik izeneko estudioan nabil beharrean, praktikatzen. Kartelak, irudi korporatiboa... diseinu grafikoko lanak egiten

dodaz.

Horrezaz gainera, ilustratea asko gustetan jata. Batez be, haurrentzako ipuinak, ilustratuko askatasun handia emoten dabe eta. Ez dot inoz ilustrau ipuin bat, baina gustauko litxakit.

Hor nabil nire gauzak egiten, noraezean, gai konkretu bat hartu barik...

Komikiak eta nobela grafikoa be gustauko litxakizu ilustratea?

Komikiak gustetan jataz asko, baina ez da nire esparrua. Haurrentzako ipuinak gustetan jataz ilustratuko.

Deskribidu Donostiako jazzaldia irabazi dauan kartela.

Chillida ipini neutsan izena. Nire kartelak Txillidaren laminak gura zituan transmitidu. Gero, Donostian dagoan Txillidaren Haizearen Orraziak inspirau eban kartelean agertzen dan 47 zenbakia. Ez neban gura kartela

kargetea, gura neban zeozer indartsua, baina aldi berean, sinplea eta uste dot lortu nebala.

Kolore urdina ipini neutsan, Donostiako kostaldea irudikatzeke.

Emoten dau tronpetak egiten dauala Donostia bera balitz moduan, ez?

Bai. Hori da. Asmoa hori da. Gero Heineken-en ikurra dago berdez. Heinekenek kolore hori daukalako.

Eskuz egindako zeozer zala be gura neban transmitidu, teknologikotik urteteko. Gaur egun oso digitalizata dagoz kartelak. Argi dago Photoshop-a erabili dodala kolorea emoteko baina beti eskuz egindako lana emotea gura neban.

Zer da urdina edo itsasoa, lehorreko batentzat?

Nahiz eta lehorrean bizi, beti gustau egin jata itsasoa. Niretzat itsasoa askatasuna da. Lehorreko paisajea be gustetan jata, baina itsasoak lasaitasuna emoten deusta.

Eta jazz-a gustukoa dozu?

Ez naz oso aditua. Entzutea gustetan jata, baina esaten badeustazu jazzaldian egondako

"Eskuz egindako zeozer zala gura neban transmitidu"



musikarien izenak akaso ez dozaz ezagutuko. Dana dala, jazz-a musika moduan sano interesgarria iruditzen jata.

Beste zein musika mota gustetan jatzuz?

Gustetan jata batez be bluesa, rock-and-rolla, hard rocka eta lehengo taldeak Led Zeppelin eta holangoak.

Eta edateko garagardoa ala kalimotxoa gurago dozu?

Garagardoa. Lehen kalimotxoa edaten neban, baina aspaldion

garagardora pasau naz, batez be, kalimotxoak emoten dauan ajea oso txarra dalako. Garagardoa eta whisky-a.

Sariaren ostean, zeintzuk dira zure proiektuak?

Free-lance moduan nabil webgune bat egiten niretzat. Krisialdian saria irabaztea bultzada ona izango dalakoan nago. Badaukadaz hainbat proiektu eta hainbat idea, honetatik bizi gura dot eta: diseinu edo ilustraziotik, hain zuzen be.



www.alkizabal.net
alkizabal@alkizabal.net
Zabalik 07:00 - 19:00

ALKIZABAL

Eraikuntzarako makineriaren salmenta eta alokairua

BOLUNBURU POLIGONOA
Amorebieta-Lemoa bidea
Tel. 94 631 44 06. Faxe. 94 631 20 26
48330 Lemoa (Bizkaia)













· Zuk behar duzuna daukagu, galdetu konpromiso gabe.
· Garraio zerbitzua.